

## **BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**

2019-2023 agintaldia

1. batzarraren AKTA.

2019ko azaroaren 27a – 17:30 h

### **BERTARATUAK**

Juan María Aburto (Bilboko alkatea)  
Koldobika Narbaiza (Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia, presidenteordea)  
Gonzalo Olabarria Villota (Kulturako zinegotzi ordezkaria)  
Xabier Otxandiano (Garapen ekonomikoa, Merkataritza eta Enplegu zinegotzia)  
Nora Abete García (PSE-PSOE Udal taldea)  
Asier Gonzalez Soreasu (EH-Bildu Udal taldea)  
Ana Viñals Blanco (Elkarrekin Podemos Udal taldea)  
Jesús Sanz Salamanca (PP udal taldea)  
Jones Unzueta (Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendaria)  
Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria)  
Jokin Gorozika Bidaurretxa (Labayru Fundazioa)  
Jon Maguregi (Bilboko euskaltegiaren ordezkaria)  
Olatz Elgea Lopez Cano (Bilbao Dendak)  
Iker Goñi Antuñano (Athletic Club)  
Ainara Aretxabaleta (Uztarri Kultur Elkartea ordezkaria)  
Javier Larrañaga Juaristi (Zenbat gara elkarteko ordezkaria)  
Lutxo Egia del Río (Idazlea eta kultura-sustatzailea)  
Mari Jose Arrieta Sagarna (Euskara zuzendariordea)

### **EZIN ETORRIA ALDEZ AURRETIK ADIERAZI DUTE**

Marta Ajuria (Ekonomia eta Ogasun zinegotzia)  
Alaitz Oribe Torrontegi (EAJ-PBNU Udal taldea)  
Jon Simón Gartzia Legarreta (Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila)  
Andrés Urrutia Badiola (Euskaltzaindia)  
Goizalde Landabaso Etcheverry (Kazetaria)

### **IDAZKARITZA TEKNIKOAK**

Ziortza Artabe (Labayru Fundazioa)

## GAI-ZERREDA

### 1.- 2019-2023 agintaldirako batzordekideei ongietorria eman.

Alkateak ongietorria eta eskerrak eman dizkie bertaratuei. Ondoren, batzordekideei berba eman die, bakoitzak bere burua aurkeztu dezan, kide berriak sartu dira batzordera eta.

Karpeta batean banatu zaie bilerarako materiala. Honako dokumentuak dira:

- Alkatearen gutuna
- Gai-zerrenda
- Bilboko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren liburuxka.

Horrez gain, *Bilbo* izenburua duen liburua oparitu zaie,. Elkar argitaletxearen Arian sailean argitaratu dena. Euskara ikasten ari den jendearentzat da bereziki aproposa liburu hau, irakurgai mailakatuez osatuta dago eta. Bilbo ikuspegi desberdin batetik ezagutzeko aukera ematen du, hirian barrena proposatzen duen ibilbideari esker.

### 2.- Aurreko bileraren (2018-12-18) akta onartu.

Aurreko bileraren akta onartu egin da.

### 3.- Bilboko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana (2018-2022) aurkeztu

Koldo Narbaizak, Jone Unzuetak eta Mari Jose Arrietak **Euskararen erabilera normalizatzeko planaren nondik norakoak** azaldu dituzte.

Hasteko, Koldo Narbaizak adierazi du **Bilboko Udaleko sail guztiak** direla planaren eragin-eremukoak eta, beraz, Udaleko sail guztiei eragiten diela planak. Gaineratu du Bilboko Udalean **hizkuntza ofizial bien arteko berdintasunera jotzea** dela Plangintzaldiaren **xede nagusia**; bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik berdintasun egiazkorantz joatea, hain zuzen ere.

Ondoren, Bilboko Udalaren VI. Erabilera Planaren **gidalerro nagusiak** aipatu eta azaldu ditu Koldok. Honako hauek dira:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak eta Udalaren obligazioak
- Borondatetik harago

- Hizkuntza-prestakuntzaren eta trebakuntzaren garrantzia
- Itzulpenen kudeaketa
- Dokumentuen estandarizazioa
- Kalitatezko komunikazioa
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak
- Hizkuntzen kudeaketa
- Erreferentzia Marko Estandarrarekin (EME) lerrokatua

Planaren 4. gidalerroa azaldu duenean, itzulpenen kudeaketari buruzkoa dena, alkateak adierazi du erronka haundia dela Udalarentzat itzulpenaz baliatzeko oso barneratuta dagoen joera aldatzea, hau da, jatorrizko testuak gaztelaniaz idazten dira eta euskarara itzultzen dira.

Gai honi dagokionez, plangintzaldi honetan gure ahaleginak bideratuko ditugu itzulpenen kudeaketa egokia lortzera. Zentzu honetan, pausuak emango ditugu zenbait testu eta dokumentu euskaraz egin daitezzen zuzenean, itzultzera bidali gabe.

Erabilera Planaren **helburuekin** jarraitu du aurkezpenak. Koldoren hitzetan, ondorengo helburu bi hauek ezarri dira VI. plangintzaldirako:

- Euskara **zerbitzu-hizkuntza** izatea
  - Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
  - Jendaurreko guneeetan udalak jarrera proaktiboa erakustea herritarrei, euskara erabiltzera gonbidatzeko.
- Euskara **lan-hizkuntza** izatea
  - Langileen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.
  - Ahozko eta idatzizko lan-harremanetan euskararen erabilera areagotzea.
  - Hizkuntzen kudeaketa Udaleko kudeaketa-sistema orokorrean integratzea.
  - Euskararen erabilera areagotzea herri-administrazioekiko harremanetan.

Jarraian, Jone Unzuetak hartu du hitza. Plana aurrera eramateko, ezinbestekotzat jotzen du **antolakuntza-egitura egokiak** izatea eskura. Hala bada, hauexek dira helburu horri begira aintzat hartu beharrekoak:

- Erakundea bera osotasunean kontuan hartzea.

- Udaleko sailetan hezurmamitzea.
- Udal-mailan Erabilera Plana indartzea: Erabilera Plana **Udalaren proiektu estrategikoa izatea**, hain justu.

Horiek horrela, Jonek esan du **Udalaren estrukturarri jarraituz, zuzendaritza guztietan Euskara-taldeak sortuko direla**, apurka-apurka, plangintzaldian zehar. Euskara taldeak Erabilera Planarekin lan egiteko unitateak dira.

Euskara talde bakoitzean egongo dira Zuzendaritzako ordezkariak, Euskara arloko ordezkariak eta **Euskara-koordinatzailea(k)**.

Beraz, Erabilera Planaren arabera, honako egitura hauek osatuko dira Erabilera Plana garatzeko eta inplementatzeko:

- **Normalizazioaren Jarraipenerako Batzorde Gidaria:** Bere ardura nagusiak izango dira, hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arauak betetzen direla zaintzea; hizkuntzen kudeaketaren gainean proposamenak egitea; eta Erabilera Planaren jarraipena egitea.
- **ENBA Batzordea:** langileei eta lanpostuei eragingo dien neurriak eztabaidatzeko, besteak beste:
  - Derrigortasun-datak
  - Hizkuntza-eskakizunak eta lanpostu hutsek edo/eta berriek eduki behar dituzten ezaugarriak
- **Zuzendaritzetako euskara-taldeak:** kasuan kasuko zuzendaritzan hizkuntza ofizialak nola kudeatu behar diren lantzea, urteko plana planifikatzea, gauzatzea eta jarraipena egitea izango da euskara-taldeen zeregina.

Azken puntu horren harira, Mari Jose Arrietak esan du Zuzendaritza guztietan euskara-koordinatzaile bat egongo dela gutxienez. Honako Zuzendaritza hauetan, daukaten egituraketa kontuan hartuta, euskara-koordinatzaile bat baino gehiago izango direla aurreikusten da:

- Giza Baliabideen Zuzendaritza (**3** euskara-koordinatzaile)
- Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Zuzendaritza (**2** euskara-koordinatzaile)
- Kultura Zuzendaritza (**2** euskara-koordinatzaile)
- Udaltzaingoaren Zuzendaritza (**3** euskara-koordinatzaile)

**Lan-metodologiari** dagokionez, 4 ideia aipatu ditu Mari Josek:

- Erabilera Planari zabalkundea ematea, komunikazioa eta langileen parte hartzea indartu
- Normalizazioaren Jarraipenerako Batzorde Gidaria eratzea
- Euskara-koordinatzaileak izendatzea
- Euskara-taldeak osatzea zuzendaritzetan

Euskara-koordinatzaileak izendatu eta euskara-taldeak osatuta, **3 urrats** hauek emango dira:

1. Urtez urteko kudeaketa-plana diseinatzea
2. Plana gauzatu eta kudeatzea
3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea

Mari Josek adierazi du **helburuei jarraipena** egingo zaiela urtero; eta **Erabilera Planaren amaierako ebaluazioari** dagokionez, lan osatuagoa gauzatuko dela.

Bukatzeko, Mari Josek **2019. eta 2020. urteetarako aurreikusitako** lan-kronogramaren eginkizun nagusiak azaldu ditu.

#### **4.- Galderak eta iradokizunak.**

Ez da galderarik ez iradokizunik egon.

Honenbestez, alkateak amaitutzat eman du bilera 18:30etan, partehartzaileei eskerrak emanaz.

Bilbon, 2019ko azaroaren 27an

**Bilboko Euskararen Aholku Batzordeko idazkaria**  
**Mari Jose Arrieta**